

SAUVEUR NARBAITZ
(1908-1979)

1979.eko Irailaren 12-an Sauveur Narbaitz jauna Behaizen hil da bere sort-etxean, eritasun luze eta oinazetsu baten ondotik.

Errient ohia zen, gobernuko eskoletan euskal herri askotan haurren argitzen ari-izana.

Amikuzeko euskarari arras atxikia zen, bai eta eskualde hortako ohi-dura gehieneri.

Politikaz sozialista zen. Luzaz bere alderdiko *Le Travail* astekaria kudeatu du, eta askotan lagunek aurkeztu dute beren kargudun-gai bezala auteskundetan, suerte gutirekin.

Baionan herriko gizon edo kontseilari iragan zen haatik alderdien arteko antolamendu bati esker.

Euskalzaleen Biltzarrak Dassance jaun zenaren denboran IKAS batasuna eraiki zuenean Sauveur Narbaitz ek esku hartu zuen batzorde hortan. Bere egin ahalak oro egin zituen bere errient lagunak euskararen erakasterat bildu beharrez.

Berak apailatu zituen zenbait liburuxka haurrentzat, euskara heien meneko ezarriz.

Askotan idatzi du eta hitz-egin euskararen alde, erdaraz ala euskaraz.

Hortakotz Euskaltzain-laguntzale izendatua izan zen.

Gerla denboran Alemanak ipar-euskal-herrietan baitzauden bazterren barrandan, S. Narbaitz ihardukiltzaletan eman zen. Etsaiek kausitu zuten, eta Alemaniara ereman, Buchenwald-eko zigor-zèlaietan hainitz pairaturik osagarria funditu baitzitzaion.

Ehorzketa ederrak egin diozkate Behaizen merezi zituen bezala irailaren 14ean.

Gure doluminik bizienak haren andreari, etxekoeri eta adixkideri.